



Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurten 69 testu errezeptatu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Ondoko asteetan, testu irabazleak Herrian agertuko dira.

Ene podereak

Gizonaren behako bortitza, emaztearen negar xortak, malko bat eta ni.

Segitzen nuen marrazkia gero eta ilunagoa bilakatzen ari zen, nere baitan nituen ideien arabera. Gizonaren bisaia bereziki, ez bainuen ene irudian bere begitartea baizik ageriarazten, bere begi zuriekin, zinez izugarria iduritzen zitzaidan. Ohartu nintzen zinez ene aitaordea hola ikusten nuela, gizon gaixto, bortitza, emozio on gabekoa, bere begiek erakusten zuten bezala. Hari so zen emazte gaztea, saihe-tsez zimborratu nuen. Bere nigra-
rak ez baziren ageri ere, untsa ba-
nakiene ene
amak isuri
zituen mal-
koek bere
bisai ederra
garbitu baita
ere goizegi
x a h a r t u
zizkiotela.
Ene aita
zena mari-
nela zen. Sei
hilabeterent-
zat ohi zuen
arrantzarat
joaitea. Baleen ihiztatzeko, itsason-
ziak Donibane Lohizuneko kos-
taldetik Kanadara buruz abiatzen
ziren eta handik, arrunt ontsa kar-
gaturik aitzin ez ziren sartzen. Olio,
bale haragi, hezur, denak baliatzen
ahal ziren eta gainerat, marinela
sari eder batzuekin beren etxeeta-
rat itzultzen ziren, sartzen zirelarik.
Egia erran, ofizio hori lanjerosene-
tarik zela, hori denek ontsa baza-
kiten eta marinelen familietakoek
beren etxetako gizonak arrangura-
turik goaitatzen zituzten.

Beraz, egun batez edo zuzen
erraiteko, arrats batez, ene aita ez
zen sartu. Ene ama, bere alargunt-
za denbora errespetatu ondoan,
laster berriz ezkondu zen ene ai-
taordearekin. Bizi baldintza barre-
netan ginen. Orduan ene iduriko,
amak, lehenik hurbildu zitzaion
gizonari "bai" erran zakon. Ene
aitaordeak ez ninduen sekulan
maitatu. Beretako aho bat gehia-
go nintzen, beti bera eta amaren
artean. Gehiago dena, jelos zen
ez baitzuen sekulan haurrik ukan
ahal izan ene amarekin. Ez zen
gizon gisakoa, ez batere. Ama
beti zapaltzen zuen, ez bazuen jo-
tzen ere. Berarekin ezkondu aitzin,
ene ama sorgina zen. Ez sorgin
magikoa, ez. Sendabelarrak eza-
gutzen zituen, bere amatxik era-
kutsi baitzakon jakin behar zituen
guziak eta gainera, bakarik bere
jakintzak aitzinatzen zituen, bere
jakitatea hobetzeko. Haurdun ziren
emazteak beren haurrak sortara-
tzen laguntzen zituen. Urrunetik

gizon, emazte, lamin, heldu zitzaiz-
kion gau beltzean ere, laguntza
galdegiterat, haur bat edo beste
sortarazteko.

Berriz ezkondu eta gero aldiz, gau-
zak aski fite aldatu zituen, ene ama
preso bezala ezarri eta ni, eskla-
bo. Pentsaketa ilun horietan nin-
tzen beraz, marrazki hori ziriborra-
tu nuelarik. Bat-batean, ene aitaor-
dea desagerrarazteko goma bat
hartu ondoan, bere begitartearen
ezabatzen hasi nintzen. Memento
horretan, bizpahiru gauza harri-
garri gertatu zitzaizkidan. Lehenik,
ondo-ondoan nuen aitaorde eta
amaren ezkontzaren argazkitik
desagertu zen, ene ziriborrotik be-
zala. Bigarrenik, jarria nintzen gela
alimaleko ke batek bete zuen eta
laster, ezlu-
ka hasarazi
ninduen. Azkenik,
dena argitu
zelarik,
ohartu nin-
tzen lamin
bat xutik ze-
goela supa-
zter xokoan.
Ene amaren
beharra ba-
zuela erran
zautan. Ama
oihuka deitu

nuen eta berak, deus gertatu ez
balitz bezala, lamina segitu zuen.
Memento horretan, gogora jin
zitzaidan nik ere podere batzuk
banituela. Amak eta amatxik ere,
eni buruz goaitatzen zituzten pode-
reak azkenean agertu ziren!

**Christine Paulerena
Helduak - irabazlea**




"Eguerdiro hitz goxo", "Les midis d'amatxi", Euskal Haziak elkartearen proiektu berria

Euskal Haziak elkarteak zue-
tako batzuek ezagutuko duzue
dagoeneko. Ipar Euskal Herriko
eskola elebidun katolikoetan to-
patzen den elkarteak gara, eus-
kara sustatzea xedetzat duena.
Euskara ikasgeletatik atera, eta
ikasleen eguneroko bizitzan
erabilgarri izateko proiektuak
sortu eta antolatzen ditugu.
Proiektuen artean, euskarazko
ahozkoa, idazkera eta entzu-
mena lantzen ditugu, dinamika
ezberdinak aitzina eramanez.
Urte anitz dira dagoeneko
proiektu hauek antolatzen ditu-
gunetik, historikoak direla erra-
ten ahalko genuke! Orain ordea
proiektu berri bat antolatzen
hasi gara, "Eguerdiro hitz goxo",
"Les midis d'Amatxi" deiturikoa.
Baina zer da proiektu hau? Aita-
txi-amatxi euskaldunak xerka-

tzen ari gira! Boluntarioak diren
eskoletako ikasle elebidun eta
aitatxi-amatxi euskaldunen ar-
teko topaketak antolatu nahi di-
tugu, euskara jarri erdigunean.
Euskaldunak diren aitatxi-ama-
txiak ikastetxe elebidun katoliko
hauetara ekarrarazi nahi ditugu,
hizkuntzaren transmisioa egite-
ko ideia ederra dela pentsatzen
baitugu. Horrela, garai ezber-
dineko euskaldunen bizipenak
partekatzeke parada izanen da,
euskara eta euskalkiak lantzeko
unea, belaunaldi ezberdinen
arteko ezagutza, besteak beste.
Hortaz, irakurle, zuretzako
mezu hau, aitatxi-amatxi euskal-
duna baldin bazira, edo baten
bat ezagutzen baduzu, Euskal
Haziak elkartearekin harrema-
netan jarri otoi! Zuen beharra
dugu proiektu eder hau martxan
ezartzeko. Horra hemen kontak-
turako datuak:

Telefono zenbakia:
07-72-55-63-53
Helbide elektronikoa:
euskalhaziak@gmail.com





Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurten 69 testu errezibitu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Ondoko asteetan, testu irabazleak Herrian agertuko dira.

Aristi familia makinen kontra

Egun on, ni Ainhoa deitzen naiz eta familia bitxi batean bizi nintzen. Hori erraiten dut ez baigenituen bat besteari gure sentimenduak erraiten edo erakusten. Ene aita Jon deitzen zen, ene ama Maialen eta anaia Peio. Zortzi urte zituen. Nik hamabost urte nituen eta lizeorat joan behar nuen baina nere aitak nahi zuen Balira joan gaitezen oporretarat. Ene aitak norabait joan edo zerbait egin nahi baldin bazuen, egiten zuen. Beraz joan ginen, ni ez banintzen pozik ere. Bat-batean izar iheskor bat lurrerat erori zen eta beste anitz baziren. Izar bat gure aitzinean lurrera jin zen, baina Peio ikusi zuen ez zela izar bat, baizik eta robota. Horrela gure ondoan denda bat baitzen, dendarat gordetzerat joan ginen. Baina robotek atzeman eta, denak atxilotu zituzten, denak gure familia salbu. Ez ginuen xantzarik, gure familiak bakarrik mundua salbatzen ahal zuen. Makinak segitu gintuen eta eraikin handi baten aitzinean ginen. Halere, besteak gabe eraikinean sartu nahi genuen baina ez ginen gizaki gorputz batekin sartzen ahal. Beraz robot batzuk bezala jantzi ginen eta sartu. Androideak ez ziren deusetaz ohartu. Baina ez dauzuet oraindik errana robotek zendako gizakiak

atxilotu nahi zituzten. Ez ziren robotak, sakelako telefono oso aitzinatua ziren, beren sortzailea gizon biziki argiduna zen. Halere, hark egin zuen telefono hori, arrunt aitzinatua izanez, sentimenduak bazituen eta horietatik bat jeios izatea. Memento horretan, telefonoak robot guzietan erran zien familia batek bere planak desegin nahi zituela, eraikin horretan zirela beraz, ontsa xerkatu behar zutela. Bat-batean, igogailua gelditu zen ginen lekuan eta erori ginen. Gure moztorroak hautsi ziren eta erre ginen. Robot guziak gure gibeletik hasi ziren. Telefonoaren aitzinean ginen baina robot batek ene aitamak bahitu zituen. Ene anaia eta biak bakarrik ginen. Lasterka telefonora joan ginen baina robot batek Peio harrapatu zuen eta ene aitamen-



gana ereman. Joaitean, Peio eman zautan burdin puska bat, ene bizkararen gibelean ezarri nuen. Robota joan eta, ikusten nuen mugikorrek zaintzen ninduela zeren eta bi begi baitzituen eta aho bat ere mintzatzeko, bai bitxia zen! Bat-batean, lasterka telefonoari buruz joan nintzen eta hautsi nuen. Bukatua zen, telefonoak galdua zuen eta gizaki guziak libro ziren, ene familia ere. Beraz hori ez ahanzteko baina baztertzeko, Balirat joan ginen, eta bai, aitzinetik errana nauzuen aitak ideia bat bazuelarik, egiten zuela. Denak pozik ginen.

Juliana Paulerena
Donostei, kolegioa, Baigorri
4. zikloko bigarrena- bakarka



Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurten 69 testu errezibitu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Ondoko asteetan, testu irabazleak Herrian agertuko dira.

Ene ainara



euria sartzen zen eta alimaleko galerna bazen. Bainan bat-batean, tximista batean itsasoa hurbildu zen berina arte eta itsasontzi handi bat, ederra, hamazazpi-garreneko itsasontzi bat agertu zen. Bizikletaz sorginaren oihanerat joan zen. Iziturik esplikatu zion sorginak ikusi zuena, eta sorginak esplikatu zion berantegi zela eta hilen zela. Xistuka, bere ainarak iratzartu zuen Lorek eta lagunari erran zion: joaten garagar-

noa!». Eta geroztik lasaitu du bere ainara.

**Ethan Darmon,
Xan Dolhare
eta Luken Cazorla
San Mixel Garikoitz
kolegioa, Kanbo
4. zikloko irabazleak -
taldeka**

Ikasle baten istorioa da, Lore deitzen zena. Hogoi urte bazituen eta kostaldean bizi zen apartamendu tiki batean. Ainara bat bazuen kaiola ttipi batean, ttipitik hezia. Arrats batez bere lagunekin besta egin zuen eta asko edan zuen. Bihamunean, arratsaldean baizik ez zen atzarri. Utzi zuen kaiola iguzkitan eta ahantzi baitzuen ura emaita bere ainarari, hil zen. Arratsaldean iratzartu zelarik, zerua ilundu zen. Ainara itzal batzu baziren tapizean. Lotsaz, eskapatu zen urrun, urrun, hainbeste urrun ondoko herrirat arribatu baitzen eta hor pausatu zen. Bere buruari galderak pausatzen zizkion, normala dena. Aski fite atzeman behar zuen gertakari horren azalpena. Lehenik txoriak atzeman zuen, oihanerat joan zen. Oihana atzeman eta, ondotik etxola baterat sartu zen. Andere zahar batek erran zion bazekiela pasatzen zena (andere hori sorgina zen, poderio anitzekin). Oihanaren defendatzailea zen. Esplikatu zion madarikazio bat gertatuko zela eta ahal bezain fite gibelerrat ekarri behar ziola sorginari ainara. Orduan sartu zen fitxik ulertu gabe eta euria hasi zuen. Alimaleko istilak agertzen ari ziren. Bizikleta bat alokatu behar zuen fiteago joateko, egin zuena. Bere apartamendurat sartu zelarik bere ainara desagertu zen eta berina handiz idekia,



Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurten 69 testu errezebitu dira, 200 ikasle inguruk parte harturik. Ondoko asteetan, testu irabazleak Herrian agertuko dira.



Laiaren ahizpa

Duela aspaldi, itsasargi batean bizi zen neska bat, Laia izeneko. Hamalau urte zituen, ez zituen inoiz bere burasoak eza-gutu eta bakarrik handitu zen itsasargi horretan. Arrats batez Laiak itsasontzi bat ikusi zuen bere leihotik. Biharamunean, egunkaria irakurtzen ari zenean bere ordenagailuan, artikulua bat irakurri zuen: "Atzo Maitena izeneko neska desagertu da, 14 urte zituen eta maiatzaren 5ean sortu zen." Laia konturatu zen egun berean sortua zela. Maitenaren argazkia ikusi zuenean, ohartu zen berdintsuak zirela. Bat-batean oihu bat entzun zuen itsasontzitik etortzen. Belaontzia portura joaten ari zen. Laiak portura joatea erabaki zuen. Itsasontzira igo zen. Ez zuen nehor ikusi, beraz itsasontzi behegera jautsi zen. Hor bi pirata ikusi zituen eta beldurturik, ezkutatzea erabaki zuen. Oihua berriz entzun zuen. Gorderlekutik atera zen oihua nondik heldu zen ikusteko. Neska bat ikusi zuen eta Maitena zela konturatu. "Maitena!" xuxurlatu zuen Laiak. Maitenaren burua odolez bete zen eta oihala bat zuen ahoan. Neskak Maitenaren sokak moztu zituen eta bere oihala ahotik kendu zion. Bi gazteak korrika eskapatu ziren eta itsasargira joan ziren. Han estalki bat eta ur baso bat eman zizkion Laiak Maitenari. Bere zauriak sendatzen ari zen bitartean Maitena etzanik zen Laiaren ohe gainean. Oraindik ez

zuten elkarri
hitzik erran,
Laiak erran
arte:
- Zer gertatu
zaizu? Bada-
kizu ber egu-
nean sortu
garela eta
aurpegi ber-
dina dugula?
Pixka bat bixia
da hori, ez?
- Baina, Laia dei-
tzen zara? - galdetu
zion Maitenak.
- Bai! - erantzun zion.
- Orduan nire ahizpa zara, gure
burasoek galdu zaituzte istripu
batean eta beti xerkatu zaituzte.
TOK! TOK! TOK! Atea ideki zen.

Laia eta Maitenaren burasoak ziren. Denek fereka goxo handi bat egin zuten eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Urruñako plazan!

**Matilda Redondo,
Maia Larretche
eta Elena Simon
Doña Mari kolegioa,
Donibane Lohizune
4. zikloko bigarrenak - taldeka**